Bestelako Xedapenak

INDUSTRIA, BERRIKUNTZA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

2516

EBAZPENA, 2011ko otsailaren 23koa, Energia eta Meategien zuzendariarena, zeinen bidez baimentzen baitira Ordiziako udalerrian dagoen Ordizia Banaketako Transformazio Azpiestazioa egiteko aurreproiektuan jasota dauden instalazioak, herri-onurakotzat joz (Erreferentzia: 24076/A.T.D. 2010/80).

Iberdrola Distribución Eléctrica SAU enpresaren eskariz, aztertuta geratu da Eusko Jaurlaritzaren Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailaren Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzan hasitako espedientea. Espediente horren bitartez, administrazio-baimena eta herri-onuraren aitorpena eskatzen dira Ordiziako udalerrian dagoen Ordizia Banaketako Transformazio Azpiestazioa egiteko aurreproiektuan jasotako instalazioetarako.

Ordiziako Udalari jakinarazi eta jakinarazpena berretsi eta gero, ez zuen erantzun.

Derrigorrezkoa zenez, espedientea jendaurrean jarri zen, honako leku hauetan argitaratuz: 2010eko abenduaren 9an, EHAAn; 2010eko urriaren 26an, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean; 2010eko urriaren 28an, El Diario Vasco-n; eta Ordiziako udaletxeko iragarki-oholean. Hala ere, ez zen inolako alegaziorik aurkeztu.

Aztertuta geratu zen aurkeztutako proiektua. Francisco Javier Asua Aizpurua industria-ingeniari teknikoak izenpetu zuen eta Gipuzkoako Ingeniari Tekniko Industrialen Elkargo Ofizialak 2010eko uztailaren 6an bisatu (102243. zk.).

Sektore Elektrikoari buruzko azaroaren 27ko 54/1997 Legea (1997-11-28ko BOE), eta abenduaren 3ko 282/2002 Dekretua (2002-12-23ko EHAA) ikusi dira. Dekretu horren bidez, honako instalazio hauek eraikitzeko, aldatzeko, ustiatzeko, eskualdatzeko eta ixteko administrazio baimenerako prozedurak arautu ziren: argindarra ekoitzi, garraiatu nahiz banatzeko instalazioak, bai eta kontsumitzaileak konektatzeko hartuneak, zuzeneko lineak eta instalazioak ere. Halaber, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko 1957ko apirilaren 26ko Legearen Erregelamendua ere ikusi da (1957-06-20ko BOE).

Energia eta Meategien zuzendariak, Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen irailaren 22ko

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, INNOVACIÓN, COMERCIO Y TURISMO

2516

RESOLUCIÓN de 23 de febrero de 2011, del Director de Energía y Minas, por la que se autorizan y se declara la utilidad pública de las instalaciones incluidas en el anteproyecto de construcción de la Subestación Transformadora de Reparto denominada STR Ordizia, en el término municipal de Ordizia (Referencia: 24076/A.T.D. 2010/80).

Visto el expediente incoado en la Delegación Territorial de Gipuzkoa del Departamento de Industria, Innovación, Comercio y Turismo del Gobierno Vasco, a petición de la empresa Iberdrola Distribución Eléctrica, S.A.U., solicitando la autorización administrativa y la declaración de utilidad pública, para las instalaciones incluidas en el anteproyecto de construcción de la Subestación Transformadora y de Reparto denominada STR Ordizia, en el término municipal de Ordizia.

Resultando que notificado el Ayuntamiento de Ordizia y reiterada la notificación, no contestó a la misma.

Resultando que sometido el expediente a la preceptiva información pública con publicación en el BOPV el 9 de diciembre de 2010, en el Boletín Oficial de Gipuzkoa el 26 de octubre de 2010, en El Diario Vasco de 28 de octubre de 2010, y con su inserción en el Tablón de Anuncios del Ayuntamiento de Ordizia, no se presentó alegación alguna.

Visto el anteproyecto presentado, firmado por el Ingeniero Industrial D. Francisco Javier Asua Aizpurua, visado por el Colegio Oficial de Ingenieros Industriales de Gipuzkoa el 6 de julio de 2010 con el n.º 102243.

Vistos la Ley 54/1997, de 27 de noviembre (BOE de 28-11-1997), del Sector Eléctrico, el Decreto 282/2002, de 3 de diciembre (BOPV de 23-12-2002), por el que se regulan los procedimientos de autorización administrativa para la construcción, modificación, explotación, transmisión y cierre de las instalaciones de producción, transporte y distribución de energía eléctrica, así como de las acometidas, líneas directas e instalaciones de conexión de consumidores y el Reglamento de la Ley de Expropiación Forzosa de 26 de abril de 1957 (BOE de 20-06-1957).

El Director de Energía y Minas, en virtud de las atribuciones conferidas en el Decreto 514/2009, de 22 de septiembre, por el que se establece la estruc-

514/2009 Dekretuan (2009-09-24ko EHAA) eman zaizkion ahalen indarrez, honako hau

EBATZI DU:

1.– Iberdrola Distribución Eléctrica SAU enpresari baimena ematea Ordiziako udalerrian dagoen Ordizia T.B.A. deritzon Banaketako Transformazio Azpiestazioa egiteko aurreproiektuan jasotako instalazio elektrikoak egin ditzan. Hona hemen instalazio horien ezaugarriak:

– Mota: barrukoa, transformadoreak atari zabalean.

– Potentzia: 2 x 20 MVA.

– Transformazio-erlazioa: 30/13,8 kV.

2.– Baimentzen diren instalazioak herri-onurakotzat jotzea eta deklarazio horrek, azaroaren 27ko 54/1997 Legearen 54. artikuluan xedatutakoaren indarrez, honako hauek dakartza: ondasunak okupatu eta eraginpeko eskubideak hartu behar direla eta okupazioa, gainera, presaz egin behar dela. Deklarazioak, halaber, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko 1954ko abenduaren 16ko Legearen 52. artikuluak presaz okupatzeko deklarazioari dagokionez ezartzen dituen ondorioak ekartzen ditu, 53. artikuluan zehaztutako erregistro-ondorioekin.

Ebazpen hau abenduaren 3ko 282/2002 Dekretuan (2002-12-23ko EHAA) ezarritakoari eta ondorengo baldintza orokorrei jarraituz ematen da:

1) Administrazio-baimenaren indarraldia bi urtekoa izango da eragindako finka okupatzen denetik hasita.

2) Obrak egiteko beharrezko diren udal edo probintzien eskumenpeko baimen edo lizentziak eta gainerakoenak errespetaturik ematen da baimen hau, eta ez du salbuesten eskatzailea haiek eskuratzeko obligaziotik. Era berean, hirugarrenen eskubideak kaltetu gabe emango da, jabetza-eskubidea salbu utzita.

Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta bere aurka, gora jotzeko errekurtsoa jarri ahal izango da Industria eta Energia Sailburuordetzan, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita, eta hori guztia Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea aldatzen duen 4/1999 Legean ezarritakoa betez.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko otsailaren 23a.

Energia eta Meategien zuzendaria,
OSKAR ZABALA RABADÁN.

tura orgánica y funcional del Departamento de Industria, Innovación, Comercio y Turismo (BOPV de 24-09-2009),

RESUELVE:

1.– Autorizar a la empresa Iberdrola Distribución Eléctrica, S.A.U. las instalaciones eléctricas incluidas en el anteproyecto de construcción de la Subestación Transformadora de Reparto denominada STR Ordizia, en el término municipal de Ordizia, de las siguientes características principales:

– Tipo: interior con transformadores en intemperie.

– Potencia: 2 x 20 MVA.

– Relación de transformación 30/13,8 kV.

2.– Declarar en concreto la utilidad pública de las instalaciones eléctricas que se autorizan, llevando implícita esta declaración, a tenor de lo dispuesto en el artículo 54 de la Ley 54/1997, de 27 de noviembre, la necesidad de ocupación de los bienes o adquisición de los derechos afectados, e implicando la urgente ocupación de los mismos y determinando las consecuencias que para la declaración de urgente ocupación dispone el artículo 52 de la Ley de Expropiación Forzosa, de 16 de diciembre de 1954, con los efectos registrales del artículo 53 de la misma.

Esta Resolución se concede de acuerdo con lo dispuesto en el Decreto 282/2002, de 3 de diciembre (BOPV de 23-12-2002), y con las condiciones generales siguientes:

1) El plazo de validez de esta autorización administrativa será de dos años a partir de la fecha de ocupación de la finca afectada.

2) La presente autorización se otorga sin perjuicio e independientemente de las autorizaciones, licencias o permisos de competencia municipal, provincial y otros necesarios para la realización de las obras, no relevándose al peticionario de la necesidad de obtención de los mismos. Así mismo, se concede sin perjuicio de posibles derechos de terceros y dejando a salvo el derecho de propiedad.

Contra la presente Resolución, que no pone fin a la vía administrativa, se podrá interponer recurso de alzada ante la Viceconsejería de Industria y Energía, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de notificación de esta Resolución, todo ello en virtud de lo establecido en la Ley 4/1999, de modificación de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

En Vitoria-Gasteiz, a 23 de febrero de 2011.

El Director de Energía y Minas,
OSKAR ZABALA RABADÁN.